

## Ibon Sarasola...

Eritzi hauetatik aparte, garrantzi guttiko hutsen batzuk ere izango ditu, noski\*. Holako obra bat burutzeak berak dakarren gauza da. Idazle eta beren lanen artean ere ba dira hutsunetxo batzuk ere; ez handiak. Tomas Agirre «Barrenso» ez da apaiza, 123. orrialdean dioen bezala. Eta **Uztaro**, bere nobela, ezin da jarri ohitura nobelatzat. Horretatik ere zerbait baldin badu, joko etxeen kritikazkoa da. Oroit\*, Kursaal eta Gran Casino ba zirela Donostian. Eta, obren artean, M. Zarateren **Bizkaiko euskal idazleak** (1580-1968) ere bere tokia behar zuen behinik behin. Historia aldetik begiratu dagoenez, euskalki\* baten kondaira urratsetan\* mugaturik. Bizpahiru urte lehenago argitaratu bazen, garrantzi handia izango zuen liburu horrek, eta orain zergatik ez? Bat batean batasunaz neurritz kanpora egarritu garelako? Baina historiak beti jarraituko du historia izaten, eta batasuna indartu arterainokoak bere tokia izango du.

Egileak, idelak eta imajinak azkar eta garbi erabiltzen daki. Atsegin handiz irakurtzeko eran. Eskuetan hartu ondorean, irakurri arte utzi ezinezko liburua da. Ez du unetxo bat ere aspergarrik.

Obra guztian zehar, gure literatura ongi ezagutzen duenaren ageriak ematen ditu egile bizkor honek. Hemen salatu ditugun hutsak eta agertu ditugun ikusmolde desberdinak oso txikiak dira, liburuak dakartzan berri eta eritzi jakingarri ugarien artean. Ibonek begi kolpe onez epaitu ditu, gure literaturaren kondairak dituen korapilorik handienak; labur eta ongi juzgatzen jakin du. Gaur, gure artean, gutti dira holako lan bat hain ongi burutzeko ahal direnak. Eta euskal literaturarekin zerbait arduratzen\* diren guztiek irakurri behar duten liburua dugu hau.